

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

## 5271

*190/2016 DEKRETUA, abenduaren 7koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia izendatzen duena.*

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendaritza-organoen eginkizunak arautzen dituen martxoaren 5eko 64/1985 Dekretuaren 5. artikulua xedatzen duenez, zuzendari nagusia Industria eta Merkataritza Saileko titularrak proposatu eta Jaurlaritzak izendatuko du.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2016ko abenduaren 7an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Iñigo Ansola Kareaga jauna Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusi izendatzea.

2. artikulua.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko abenduren 7an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.